

Merkatu-zerbitzuek 2017an itxiera positiboa izan dute


Merkataritzak, 2017an, salmentetan % 1,7ko igoera izan zuen eta Beste merkatu-zerbitzuetan igoera % 1,8koa izan zen, termino errealetan

Merkataritzaren sektoreak, handizkarien eta txikizkarien merkataritzak eta ibilgailuen salmenta eta konponketa hartzen dituenak, % 2,2 egin du gora, termino finkoetan, 2017ko laugarren hiruhilekoan; Beste zerbitzu batzuetako sektoreek, ordea, % 1,9ko igoera izan dute salmentetan. Hori guztia, aurreko hiruhileko berekoaren aldean.

Aurreko hiruhilekoa dela eta, Merkataritzaren sektoreak % 0,2ko igoera izan du eta Beste zerbitzu batzuek % 0,5ekoa, prezio finkoetan eta urtaroaren eraginak kenduta.

Euskal AEko merkatariatzako koiuntura-indizearen eta beste zerbitzuen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkataritzaren barruan, urte arteko bilakaerak positiboak izan dira Motordun ibilgailuen salmentarako eta konponketarako, zeinak % 4,7 egin baitu gora, eta Handizkako merkatariatzako salmentetarako, zeinak % 2,8 egin baitu gora. Txikizkako merkataritzaren salmentek, ordea, % 0,1 egin dute gora.

Beste zerbitzuen atalean, termino finkoetan, % 2,7 egin du gora Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen salmenta-indizeak eta Ostalaritzarenak, % 2,3 Garraio eta biltegiatzearen sektorearenak eta % 2,2 Administrazio-jarduera eta zerbitzu osagarrienak. Ordea, % 2,3 egin du behera Informazio eta komunikazioenak.

Lurralde historikoen arabera, Araban % 3,5eko igoera egon da Merkataritzan eta % 1,1ekoa, Beste zerbitzu batzuen sektorean. Bizkaian, Merkataritzak % 1,2 egin du gora eta Beste zerbitzu batzuek % 2,4; eta, Gipuzkoan, % 3,2ko igoera egon da Merkataritzan eta % 1,1ekoa Beste zerbitzu batzuen sektorean. Hori guztia, 2016ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta eta prezioen eragina kenduta.

EA Erako langile okupatuen indizeak gora egin du urte arteko aldian bi indizeetan: % 1,4 Merkataritzaren sektorean eta % 2,2 Beste zerbitzu batzuen sektorean.

1. taula. Euskal AEko zerbitzuen koiantura-indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa (p). IV/2017

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
Merkataritza	2,2	0,2
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	4,7	2,8
Handizkako merkataritza	2,8	1,1
Txikizkako merkataritza	0,1	-1,1
Bestelako zerbitzuak	1,9	0,5
Garraioa eta biltegiatzea	2,3	0,8
Ostalaritza	2,7	1,1
Informazioa eta komunikazioak	-2,3	-0,1
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	2,7	1,9
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	2,2	1,1
Araba/Álava		
Merkataritza	3,5	1,3
Bestelako zerbitzuak	1,1	0,2
Bizkaia		
Merkataritza	1,2	-0,6
Bestelako zerbitzuak	2,4	1,1
Gipuzkoa		
Merkataritza	3,2	0,8
Bestelako zerbitzuak	1,1	-0,3
ENPLEGU INDIZEA		
Euskal AE		
Merkataritza	1,4	0,5
Bestelako zerbitzuak	2,2	0,5

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiantura-indizea

2017KO URTEKO BALANTZEA

Urtean, Merkataritzaren sektoreko salmentek % 1,7ko igoera metatua izan dute eta Gainerako zerbitzuenek % 1,8 egin dute gora, termino errealean.

Hiru lurraldeetan, merkatuko zerbitzuek bilakaera positiboak izan dituzte. Araban, Merkataritzaren sektoreko salmentek % 2,8 egin dute gora eta Beste zerbitzu batzuetakoek, % 1,2; Bizkaian, Merkataritzaren sektoreko salmentek % 1,3 egin dute gora eta Beste zerbitzu batzuetakoek, % 2,1; eta, Gipuzkoan, Merkataritzaren sektoreko indizeak % 1,9 egin du gora eta Beste zerbitzu batzuetakoek, % 1,5; hori guztia, prezio finkoetan.

Merkataritzaren sektorean okupatuta dagoen langileriak, 2017an, % 1,4ko igoera izan zuen, aurreko urteko batez bestekoaren aldean, eta % 2,1 egin zuen gora, Beste zerbitzu batzuen sektorean.

2. taula. Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Urte arteko aldakuntza-tasa

	PREZIO FINKOAK		
	2017	2016	Δ%
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE			
Merkataritza	95,1	93,5	1,7
Bestelako zerbitzuak	90,0	88,4	1,8
Araba/Álava			
Merkataritza	100,2	97,4	2,8
Bestelako zerbitzuak	85,8	84,9	1,2
Bizkaia			
Merkataritza	91,7	90,5	1,3
Bestelako zerbitzuak	87,8	86,0	2,1
Gipuzkoa			
Merkataritza	98,3	96,4	1,9
Bestelako zerbitzuak	96,2	94,8	1,5
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE			
Merkataritza	92,9	91,7	1,4
Bestelako zerbitzuak	91,5	89,7	2,1

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62